

Hitzaurrea

Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak Ekintza Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Urtekariaren hamabigarren edizioa aurkezten du liburuki honetan. Argitalpen hau osatzen duten artikuluen bidez, Ekintza Humanitarioaren eta Giza Eskubideen arloko hausnarketa kritikoan eta praktika, esperientzia eta ikerketen trukean ekarpena egin nahi du. Izan ere, pentsamendu kritikoa sortzeko espazioa eskaini nahi da, mundu akademikorako ez ezik arlo horietan lanean diharduten estatuko eta nazioarteko gizarte eragileentzat ere baliagarri izan dadin. Hortaz, badago sortutako jakintza aplikatzeko asmoa, mundu akademikoaren mugak gainditu eta gizarte bidezkoago eta zuzenagoak eraikitzen laguntzeko.

Urtekariaren hamabigarren edizio honek era askotako ekarpenak egiten ditu (hainbat diziplinatatik eta kasuen azterketatik), baina puntu bera erakusten digute denek: egungo gizartearen aniztasun soziokulturala. Egiaztapen horretatik abiatuta eta balioztat aitorrita, zenbait galdekizun planteatzen dira. Horrela bada, lehenengo bi artikuluek nazioarteko eta estatuko legedia aztertzen dute aniztasun soziokulturalaren aitormen eta bermearen inguruan, ikuspegi juridikotik: lehenengoak, era orokorrean; eta, bigarrenak, kasu jakin bat jorratuz: burkarena.

Aniztasun soziokulturalaren eta berorren alderdi juridikoaren traera orokorretik abiatuta, Latinoamerikako herrialde indigenen esperientziak, borrokak eta prozesuak lantzen diren artikulua batzuk ageri zaizkigu ondoren. Artikulu horiek Herrialde Indigenei buruzko Diziplina ugari V. Topaketan dute jatorria. Deustuko Unibertsitatean ospatu zen topaketa hori, joan den maiatzean, «Indigenen joan-etorriak, eskubideak eta identitateak» izenburupean. Diziplina ugari ikuspegitik jorratzen dira arlo juridikoko, identitateari, politikari, ekonomari eta kulturari buruzko zenbait gai. Horiek guztiek berriro garrantzitate aniztasun soziokulturalera, aniztasun horren aitormen eta kudeaketara giza eskubideen esparruan eta subjektu indigena herritar, norbanako eta talde moduan aitortzera.

Aurreko edizioetatik, Urtekariak lanean jarraitzen du nazioartean aitortpena duten aldizkari zientifikoek datu basean egoteko behar diren irizpideak betetzeko. Aurreko edizioetan bezala, zabalik dago hurrengo ediziorako artikulua originalak bidaltzeko epea, estiloko arauetan ikusiko duzuen bezala. Hartara, zuen originalak bidaltzera animatu nahi zaituztegu eta aukera horren zabalkundea egitera. Urtekariarekin batera, joan den ikasturtean Institutuak egin dituen jarduerarik garrantzitsuenen aurkezpena ere egiten da.

Derechos de autor (Copyright)

Los derechos de autor de esta publicación pertenecen a la editorial Universidad de Deusto. El acceso al contenido digital de cualquier número del Anuario de Acción Humanitaria y Derechos Humanos (en adelante Anuario) es gratuito inmediatamente después de su publicación. Los trabajos podrán descargarse, copiar y difundir, sin fines comerciales y según lo previsto por la ley. Así mismo, los trabajos editados en el Anuario pueden ser publicados con posterioridad en otros medios o revistas, siempre que el autor indique con claridad y en la primera nota a pie de página que el trabajo se publicó por primera vez en el Anuario, con indicación del número, año, páginas y DOI (si procede). La revista se vende impresa Bajo Demanda.